

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2025-09-08

BILERA ZENBAKIA: 8

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea), Amparo eta Maider.

LANDUTAKO GAI ORDENA

Bileran hiru gai landu ditugu: festak, bizikletak eta menopausia.

Festak:


Ongizate batzordetik ez gaude gonbidapen zuzenak ematearen alde, festetan parte hartzeko ospatzen diren herri afarian, bazkarian esaterako. Aurreko urteetan gizarte langileak eta batzordeko kideok zuzenean gonbidapenak banatu ditugu eta ez da balorazio positiboa izan. Ez dugu jakin aurreikusten herritarren artean sortu dugun inpaktua. Era berean, ez dugu jakin gonbidatutako pertsonak eroso sentiarazten beraientzako arrotza den ospakizun baten. Gonbidatu ditugun pertsonen ez diegu tresna nahikoa eman era aske baten erabakiak hartzeko.

Ongizate batzordeko kideok formakuntza antiarrazista jasotzen ari gara eta ezinbesteko formakuntza iruditzen zaigu herrian sortzen diren egoera deserosoak mahai gainean jartzeko, jarrera arrazistak identifikatzeko, begirada lantzeko, norberak bere burua aztertzeko, nolako Itsasondo eta itsasondoar nahi ditugun baloratzeko.

Beraz, kultur teknikariari jakinaraziko diogu gure ikuspuntua eta proposamena luzatuko diogu: festetako kartel edo programan adierazi "Festetan guztiok parte hartzea nahi dugu! Une honetan zailtasun ekonomikoak badituzu, jarri Gizarte Langilearekin harremanetan".

Bizikletak:

Azken urteotan Goierriko Txirrindularitza Bultzatuz elkarteak karrera eta ekintza ezberdinak antolatu ditu, eta parte hartzaile kopuru handiena izateko asmoz bigarren eskuko bizikleten deialdiak izan dira, ume denek bizikleta dutela ziurtatzeko. Gertatu izan da, umeren batek ez jakitea bizikletan ibiltzen baina ikasteko gogoia erakustea edo bizikletan ibiltzen jakin baina bizikletarik ez izatea.



Ongizarten, gai honen inguruan gogoeta eginda, proposamena dugu ikasturte honetako erronka izango dena: koordinazio talde bat sortu, eskola+ txirrindularitza elkarteak+ongizate.

Menopausia:

Urriaren 18an “Menopausiaren Mundu Eguna” dela aprobetxatuz, herri mailan gai honen inguruan interesa duen emakumeen artean telegram talde bat sortzea baloratu dugu. Bertan baliogarritzat dugun informazioa partekatzeko aukera izango dugu, dokumentalak, filmak, artikulak, elkarriketak, liburuak,... eta menopausiari buruzko hitzaldi, tertulia, kedada, ikastaro antolatzeak aukera emango dugu.

Bestelakoak:

Irailean zehar Emaginekin ikasturte hasierako bilera egingo dugu eta hartutako martxa eta erabakien berri hurrengo bileran emango dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Festen inguruko ikuspuntua Nereari azaldu		Maidar
Emaginekin koordinazio bilera		Jone eta Maidar
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: urriaren 6an, 17:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.		